

GOBERNU BATZARRA

2014. 04. 04

Behin Behineko Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko apirilaren lauan, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Lore Agirre Zipitria	
Zinegotziak:	
Asier de los Rios Soraluze Rosa M. Urkola Irigoien Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-“Usabal, Caldereria Delta. Iñauteriko karroza eta konpartsak gordetzeko urte beterako alokatzeko kontratua onartzea.
Idazkaria:	3.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.
Jose Luis Unanue Ugalde	4.- 8/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	
Paulino Alonso Eraso.	

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko martxoaren 28an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- “Usabal, Caldereria Delta. Iñauteriko karroza eta konpartsak gordetzeko urte beterako alokatzeko kontratua onartzea.

FORJA Y CALDERERIA DELTA, S.A., enpresa da Tolosako Iruña Etorbidea, 16an kokatuta dagoen eta gutxi gorabehera 1.250 metro koadroko azalera duen pabilioiaren jabe.

Tolosako Udalak erabili nahi du aipatutako pabilioia, etxebizitzaz bestelako erabilerarako den errentamendu erregimenean, urte batez.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lehen aipatutako pabilioia Iruña Etorbidea 16an kokatuta daogena, 2014ko martxoaren 15etik hasita, 2015eko martxoaren 15era, errentamendu erregimenean hartzea eta horretarako aurkeztu den kontratua onartzea.

BIGARRENA.- Behin epe hori bukatuz gero, errentamendu-harremana amaitutzat jotzea errekerimendu bereziren beharrik gabe.

HIRUGARRENA.- Kontratuak irauten duen aldi osorako 1.250€/ hileko ordaintzea, gehi BEZ.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Forja y Caldereria Delta, S.A., enpresari eta festetako arduradunari.

3.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 64.105,79 euroko faktura onartzea, martxoko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

4.- 8/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **8/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; 197,854,86 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **8/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA